

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Hiru pertsona hil ziren uztailean Nafarroako errepedetan

*22 pertsona hil dira trafiko-istripuetan lehen zazpi hilabeteetan, 2013ko denboraldi berdinean baino bi gehiago*

Viernes, 01 de agosto de 2014

Hiru pertsona hil ziren iragan uztailean Foru Komunitateko herri barruko eta herri arteko bideetan izandako trafiko-istripuetan, Herrizaingo Zuzendaritza Nagusiaren [behin-behineko balantzearen](#) arabera. 2013ko uztailean, 5 hildako izan ziren.

2014ko lehen zazpi hilabete hauetan, 22 dira Nafarroako trafiko-istripuetan hildakoak. Iaz, denboraldi berdinean, 20 hildako erregistratu ziren.

Bi urteren ondoren, ekainean hil zen lehen kamioilaria, eta bigarrena uztailean hil da.

Halaber, orain arte, lau txirrindulari dira trafiko-istripuen ondorioz hildakoak. Kopuru hori ez da erregistratu 2005etik.

### % 91 gizonak

17 gidariak ziren, 3 autoetako bidaiariak eta 2 oinezkoak. Gora egiten ari da aurten hildako gizonen eta emakumeen arteko aldea, izan ere, 22 pertsona horietatik 20 (% 91) gizonak eta 2 emakumeak (% 9) izan dira.

Hildakoen adinari erreparatuta, % 50ek 45 eta 64 urte artean zituen. Hildako gehien izan dituen bigarren adin-taldea 25 eta 44 urte artekoa izan da; guztien % 27 dira talde horretakoak. Bi adin-talde horiek hartzen dute hildako guztien % 77, beraz, ez dira 18 eta 25 urte arteko gazteak biktimadun istripu kopuru handiena jasan eta eragiten dutenak.

Asteko egunei dagokienez, osteguna da oraindik hildako gehien izan dituen eguna (% 32), eta ondoren ostirala eta igandea (% 23). Ez da trafiko-istripuengatik hildakorik izan astelehen eta astearteetan.

2013ko denboraldi berdinari erreparatuz gero, egonkorra da Nafarroako trafiko-istripuen kopurua guztira; hala ere, % 0,37 murriztu dira. Bide motak kontuan hartuta, % 3,33 egin dute behera herri arteko istripuek eta % 9,23 gora herri barrukoak.

Hildakoak eragin dituzten istripuek % 5,55 egin dute gora, eta hildakoei erreparatuta, kopuruak % 10 egin du gora; hala, txikitu egin da ekainean erregistratutako hildakoen kopuruak 2013. urtearekin konparatuta zuen aldea. Zaurituei dagokienez, zauritu arinak ugaritu diren arren (% 20,45), zauritu larrien kopuruak behera egiten jarraitzen du, eta % 28,07ko murrizketa egon da.